

2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURUEN LEHENENGO JARRAIPEN ETA AHOLKULARITZA BILERAREN TXOSTENA

Egilea

Europako Kultur Hiriburuaren Jarraipen eta Aholkularitza Batzordea

2013ko urria

Jarraipen eta Aholku Batzordearen txostena da hau, 2016ko Europako Kultur Hiriburuen, batez ere, Wroclaw-ren (Polonia) eta Donostiaren (Espainia) jarraipena egin eta aholkuak emateko lehenengo bileraren ondoren egindakoa. Bruselan izan zen aipatu bilera hori, 2013ko urriaren 15ean.

1. AURREKARIAK

1.1. 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatzea Wroclaw eta Donostia

Europar Batasunaren garrantzi handiko ekimena da "Europako Kultur Hiriburu" (aurrerantzean, "EKH"). Europako kulturen aberastasuna eta aniztasuna nabarmentzea du xede ekimen horrek, bai eta Europako kulturek komunean dituzten ezaugarriak azpimarratzea, eta Europako herritarrek elkarren kulturak hobe ezagut eta uler ditzatela sustatzea ere. Gaur egun, 1622/2006/EE¹ Erabakiak (aurrerantzean, "Erabakia") arautzen du aipatu ekimen hori.

Erabakian xedatutakoaren arabera, estatu kide guztietatik Polonia eta Espainia dira 2016an Europako Kultur Hiriburu ekimena hartzeko baimena dutenak.

2011ko ekainean, Varsovia eta Madril en egin ziren azken aukeraketaren bilerak. Horietan, Wroclaw eta Donostia proposatu zituen Hautapen Batzordeak 2016ko kultur hiriburu izateko.

¹ EO L 304 2006.12.27koa, 1. or.

Honako webgune honetan daude azken aukeraketari buruzko txostenak:

http://ec.europa.eu/culture/our-programmes-and-actions/capitals/future-capitals_en.htm.

Hautapen Batzordearen gomendioari jarraituz, Poloniak eta Espainiak, hurrenez hurren, Wroclaw eta Donostia hiriak izendatu zituzten; eta 2011 urrirako, horren berri eman zieten Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari eta Eskualdeetako Lantaldeari.

Batzordearen gomendioari jarraituz, Wroclaw eta Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu zituen ofizialki EBko Ministroen Kontseiluak 2012ko maiatzaren 10ean.

1.2. Jarraipen-prozedura eta Melina Mercouri saria

Erabakiaren xedatutakoaren arabera, Europako Kultur Hiriburu izendatutako hiriek jarraipen-prozedura bat bete behar dute, izendatu dituzten unearen eta titulartasun-urtea hasi bitartean.

Jarraipen eta Aholkularitza Batzordea (aurrerantzean, "Batzordea") arduratuko da aipatu prozedura betetzeaz. Europako erakundeek izendatutako zazpi kidek osatzen dute aipatu Batzorde hori. Bitan bilduko da formalki Batzordea, gaiari buruzko zenbait aholku emateko eta ekitaldirako prestakuntza-lanen balantzea egiteko. Horrela, kalitate handia eta Europako dimentsio sendoa izango duen programa garatzen lagunduko die hiriei.

2013ko urriaren 15ean egin zen 2016ko ekimenaren lehenengo jarraipen-bilera; bigarrena, berriz, 2015eko udaberrian egingo da.

Erabakiaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, bigarren bileraren ondoren txosten bat egingo du Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak. Hura oinarri harturik, izendatutako hiriei Melina Mercouriren omenezko saria emango die Europako Batzordeak; betiere, ekintzaren irizpideak bete badituzte, eta Hautapen Batzordeak eta Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak emandako gomendioak praktikan jarri badituzte. Saria eskudirutan emango da, eta hiri bakoitzak 1,5 milioi euroko ere jaso ditzake. Dagokion urtea hasi baino hiru hilabete lehenago emango da, beranduenez, saria. Etorkizuneko Creative Europe izeneko programatik ordainduko da saria, betiere, legezko agintaritzak programa ezartzen badu. Aurrerago jaso dira saria emateko baldintzak; 5. atalean, hain zuzen.

Goian aipatutako jarraipen-bilera formalez gain, Jarraipen eta Aholkularitza Batzordearekin bilera informal eta boluntarioa egiteko gonbita egin zien Europako Batzordeak 2016ko Europako Kultur Hiriburuei, horiek formalki izendatu eta sei hilabete igaro ondoren. Horrela bada, 2012ko azaroan egin zen aipatu bilera hori.

Antolakuntza-taldeei laguntza eta aholku konstruktiboak emateko egin zen "izendapenaren ondoko" bilera. Horrela, aurretik zuten prestaketa-denbora ahalik eta ondoen aprobetxatzen lagundu zieten antolakuntza-taldeei, eta iraganean kultur hiriburu izandako beste hiri batzuen esperientziak ezagutu zituzten. Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak ez zituen gomendio formalak eman; gidaritza- eta aholkularitza-lana besterik ez baitzuen egin.

Izendapenaren ondoko bileran suertatutako zenbait gairi buruz aritzeko asmoz, Wroclawra eta Donostiara bisita laburrak egin zituzten Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeko zenbait kidek.

1.3. Hautapen Batzordearen oharrak

Hautapen Batzordeak zenbait aholku eman zituen 2011ko ekainean² Europako Kultur Hiriburu izendatutako hiriek 2016. urtea baino lehen bete beharreko aurrerabideari eta lanari buruz. Atal honetan, hain zuzen, aipatu aholku horiek jaso ditugu.

1.3.1. Wroclaw

Hautapen-bileraren ondoko txostenean, Hautapen Batzordeak:

- azpimarratu zuen proposatutako kultur programaren kalitate apartagatik gomendatu zela Wroclaw kultur hiriburu izendatzeko. Ondorioz, eskaeran proposatutako programaren garrantzia, edukia eta kalitatea mantendu eta garatuko dela ziurtatzera bideratuko lirakeke Jarraipen eta Aholkularitza Batzordearen jarduera guztiak;
- programa garatzeko proposatutako prozesuko fase guztietan bikaintasun artistikoa programaren garapenaren helburu nagusia balitz bezala errespetatzen dela ziurta dezala gomendatu zion Hautapen Batzordeak talde artistikoari;
- Hautapen Batzordeak azpimarratu zuen proiektuaren Europako dimentsioan oraindik ere badagoela zenbait hobekuntza egiteko beharra; bai ekimenerako programaren proiektuetan aurkeztutako gai ei dagokionez, bai eta Europako artistekin eta eragile kulturalekin elkarlana areagotzeari dagokionez ere. Alderdi horren jarraipena egingo luke Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak, eta egungo programak irizpide hori zorrotz betetzen duen aztertuko luke;
- EKH programa prestatu eta abiaraziko duen erakundearen antolakuntza- eta zuzendaritza-egitura xehe-xehe aztertzea gomendatu zion Hautapen Batzordeak Wroclaw hiriari, egitura argitu eta eraginkorrago bihur zezan. Gomendatu zion, hain zuzen ere, taldekide bakoitzari ardura zehatzak eslei ziezazkiola;
- Hautapen Batzordeak gogora ekarri zuen, baita ere, proiektua prestatu bitartean agintari politikoei etenik gabe eta modu egonkorrean laguntza emateak berealdiko garrantzia duela eta, aldi berean, bermatu behar dutela talde artistikoak erabateko independentzia izango duela kulturarekin lotura duten aukeraketak egiteko orduan;
- 2016rako aukeratutako hiri espainiarrarekin dituen loturak azkar zabaltzeko eta areagotzeko gomendatu zion Hautapen Batzordeak Wroclaw hiriari. Gomendatu zion, baita ere, baterako proiektu-proposamenak aurkez zitzala Jarraipen eta Aholkularitza Batzordearen lehenengo bileran;
- eskertuko luke, baita ere, Wroclaw hiria ahalegintzea finalista suertatu diren beste lau hiriekin elkarlanean aritzea etorkizunean izango diren baterako proiektuetan;
- Hautapen Batzordeak azpimarratu zuen, baita ere, oso garrantzitsua dela Europako Kultur Hiriburutzaren logotipo ofiziala agertzea ekimenari buruzko jakinarazpen-materialean;
- nabarmendu zuen, baita ere, izendapena irabazten duen hiriak ez duela automatikoki jasoko Melina Mercouri saria. Hiriak irabazi egin beharko du saria. Horretarako, eskaera-fasean hartutako konpromisorik garrantzitsuenak bete beharko ditu, eta Hautapen Batzordearen nahiz Jarraipen eta Aholku Batzordearen ohar eta gomendioak izan beharko ditu kontuan.

1.3.2. Donostia-San Sebastián

Hautapen-bileraren ondoko txostenean, Hautapen Batzordeak:

² http://ec.europa.eu/culture/our-programmes-and-actions/capitals/future-capitals_en.htm.

- Donostia zoriondu zuen bere eskaintzaren kalitateagatik. Izan ere, hautapen-aurreko fasean Donostiaren eskaintzarekin txundituta geratu zen Hautapen Batzordea; eta uste bera izan zuen azken hautapenaren fasean ere. Eskaera-fasean hiriak hartutako konpromiso guztiak bete egin direla zorrotz aztertuko du Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak;
- Hautapen Batzordeak azpimarratu zuen, baita ere, proposatutako kultur programaren kalitate bikainagatik gomendatu zela Donostia kultur hiriburu izendatzeko. Ondorioz, eskaeran proposatutako programaren garrantzia, edukia eta kalitatea mantendu eta garatuko direla ziurtatzera bideratuko lirake Jarraipen eta Aholkularitza Batzordearen jardura guztiak;
- Hautapen Batzordearen iritziz, talde artistikoak sendotasun handiz landu zuen programa zuzendariaren gidaritzapean. Horrela bada, talde artistikoa eta haren zuzendaria proiektuaren barruan mantentzeko gomendatu zion hiriari;
- programa garatzeko proposatutako prozesuko fase guztietan bikaintasun artistikoa programaren garapenaren helburu nagusia balitz bezala errespetatzen dela ziurta dezala gomendatu zion Hautapen Batzordeak talde artistikoari;
- Hautapen Batzordeak Donostiari gomendatu zion, baita ere, EKH programa prestatu eta abiaraziko duen erakundearen antolakuntza- eta zuzendaritza-egitura berrazter dezala. Horretaz gainera, etorkizuneko zereginen garrantzia eta konplexutasuna kontuan izanik, egitura ondo horniturik zuen ala ez ziurtatzeko gomendatu zion. Azkenik, argi eta garbi adierazi zuen zuzendari artistikoa izango dela programaren kalitatearen arduradun nagusia, eta erabaki artistikoak hartzeko orduan erabateko independentzia izango duela.
- proiektua presatu bitartean indar politiko guztiek babes etengabea eta egonkorra ematearen garrantzia azpimarratu zuen Hautapen Batzordeak. Horrenbestez, Hautapen Batzordeak gomendatu zuen aurrerantzean ere Donostiako Udalean, Gipuzkoako Foru Aldundian, eta Eusko Legebiltzarrean dauden indar politiko guztien ordezkariak parte hartu beharko dutela partzuergoaren gobernu-organoetan;
- Kultura Ministerioa gobernu-organoetako kide izatera gonbidatzeko aukera azter zezatela gomendatu zion Hautapen Batzordeak gobernu-organoei;
- Luzatutako finantzazioaren bilakaerari buruzko txosten eguneratuak erregulartasunez jaso nahi dituela adierazi zuen Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak;
- aukeratutako Wroclaw hiriarekin dituen loturak azkar zabaltzeko eta areagotzeko gomendatu zion Hautapen Batzordeak Donostiari. Gomendatu zion, baita ere, baterako proiektu-proposamenak aurkez zitzala Jarraipen eta Aholkularitza Batzordearen lehenengo bileran;
- eskertuko luke, baita ere, Donostia hiria ahaleginduko balitz finalista suertatu diren beste bost hiriekin elkarlanean aritzen etorkizunean izango diren baterako proiektuetan;
- Hautapen Batzordeak azpimarratu zuen, baita ere, oso garrantzitsua dela Europako Kultur Hiriburutzaren logotipo ofiziala agertzea ekimenari buruzko jakinarazpen-materialean;
- Hautapen Batzordeak nabarmendu zuen, baita ere, hiriburutza eskuratzeak ez zuela bermatzen Europako Batzordearen Merlina Mercouri saria automatikoki emango zaionik aipatu titulua irabazi duen hiriari. Hiriak irabazi egin beharko du saria. Horretarako, eskaera-fasean hartutako konpromiso guztiak bete beharko ditu eta, horretaz gainera, Hautapen Batzordearen nahiz Jarraipen eta Aholku Batzordearen ohar eta gomendioak izan beharko ditu kontuan.

2. LEHENENGO JARRAIPEN- ETA AHOLKULARITZA-BILERA 2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURUEKIN

2.1. Jarraipen eta Aholkularitza Batzordea

Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeko kide hauek hartu zuten parte bileran:

- Manfred Gaulhofer eta Jeremy Isaacs jaunek, Europako Batzordeak 2011-2013 aldirako izendatutakoak;
- Steve Green eta Jordi Pardo jaunek, Europako Parlamentuak 2012-2014 aldirako izendatutakoak;
- Anu Kivilo andreak eta Norbert Riedl jaunak, Europako Kontseiluak 2013-2015 aldirako izendatutakoak;
- Elisabeth Vitouch andreak, Eskualdeetako Lantaldeak 2013-2015 aldirako izendatutakoak.

Gaulhofer jauna izan zen bilerako buru.

2.2. Bileraren antolakuntza

Bileraren aurretik, aurrerabideari buruzko txostenak aurkeztu zituzten Wroclaw 2016k eta Donostia-San Sebastián 2016k. Europako Batzordearen galdetegi baten erantzunak jaso zituzten. Galdetegi horretan, Batzordeak galdetu zuen, besteak beste, hautapen-fasean suertatutako auziei eta Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeak proposatutako beste batzei buruz.

Hiriek, beren aldetik, aurkezpen bat egin zioten Batzordeari, eta hainbat galderei erantzun zieten. Ondoren, Batzordeak aurrerabideari buruz jardun zuen saio itxi batean, eta txosten hau egitea erabaki zuen.

Honako hauek izan ziren 2016ko Europako Kultur Hiriburuen ordezkariak:

Wroclaw 2016:

- Jaroslaw Obremski jauna, senataria eta EKHko Aholkularitza Kontseiluko burua, Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Krzysztof Maj jauna, zuzendari nagusia, Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Chris Baldwin jauna, komisarioa (emanaldia), Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Jaroslaw Fret jauna, komisarioa (antzerkia), Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Magdalena Szymanska andrea, Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Dominika Kawalerowicz andrea, Impart 2016 Jaialdiaren Bulegoa
- Jan Wais jauna, zuzendariordea, Kanpo Harremanetarako bulegoa, Wroclawko Udala

Erabakiaren 10.2. artikuluan xedatutakoa betez, behatzaile gisa joan zen bilerara Hanna Jedras andrea, Kultura eta Ondare Nazionalaren Poloniako Ministerioko Nazioarteko Lankidetzarako Saileko aditu nagusia.

Donostia-San Sebastián 2016:

- Juan Karlos Izagirre jauna, Donostiako alkate eta Donostia-San Sebastián 2016ko Kontseiluko burua
- Itziar Noguerras andrea, zuzendari nagusia, Donostia-San Sebastián 2016

- Guadalupe Echevarría andrea, kultura-zuzendaria, Donostia-San Sebastián 2016
- Garbiñe Muñoa andrea, finantza- eta ekonomia-zuzendaria, Donostia-San Sebastián 2016
- Mattijs Maussen jauna, estrategia eta nazioartekotzea, Donostia-San Sebastián 2016
- Igor Otxoa jauna, proiektu-zuzendaria, Donostia-San Sebastián 2016
- Lourdes Pérez Munilla andrea, itzultzailea

Erabakiaren 10.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, behatzaile gisa joan zen bilerara Jorge Sobredo jauna, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Kulturako Estatu Idazkaritzako Kultura Kanpoan Sustatzeko zuzendariordea.

Europako Batzordearen izenean, honako hauek guztiak joan ziren, behatzaile gisa: Sylvain Pasqua, Vincent Lagarre, Leona Zuzanakova eta Anne Ballauf (Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia – Creative Europe – Kultura unitatea).

3. 2016EKO EKHREN AURKEZPENAREN ETA GALDE-ESKE SAIOEN LABURPENA

3.1. Wroclaw 2016

Sarrera moduan, proiektuaren filosofia berria ezagutzera eman zuen ordezkariak, hau da, Wroclaw 2016 proiektuan parte hartzen duten eragileen eginkizunak eta haien arteko harremanak azaldu zituen.

“Espiral” baten lerroetan egituratzen da orain proiektuaren antolakuntza. Espiral horren erdian dago hiria (eta, harekin batera, Impart 2016 Jaialdiaren bulegoa –Fundazioa–), izan ere, herria errotik aldatzea baita proiektu osoaren helburua “edertasun-esparruak” izeneko kontzeptuaren bitartez. Ekitaldiaren antolakuntza eta koordinazio guztiaz arduratzen da Impart 2016, bai eta funtsak banatzeaz eta zenbait proiektu kultural produzitzeaz ere. Wroclaw hiriko alkatea, bere aldetik, lidergo eta ardura nagusiak izango ditu.

Aholkularien Batzordeak bermatu egin behar du Fundazioa gai dela hiriko administrazio-departamentuekin lankidetzaz erraza gauzatu eta sustatzeko. Batzorde horretako kideek, bidenabar, enbaxadore lanak egingo dituzte hiritik kanpo.

Azkenik, kultur erakunde nagusietako ordezkariak batzen ditu Wroclaw hiriko Kultura Batzordeak; horrela, artistekin eta herritarrekin lotura ona izateko aukera ematen dio talde exekutiboari.

Lidergo artistikoari dagokionez, badira bederatzi komisario. Horieta bakoitza esparru artistiko bakar batez arduratzen da orain: arkitektura, opera, musika, ikusmen-arteak, antzerkia, filmak, literatura/irakurketa, emanaldiak eta “kultura sakona”. Komisarioek ziurtatu behar dute ez dela alde handirik hautagaitza-txostenaren eta hiriburutza urteko programaren artean; horixe izango da haien egiteko nagusia. Orain arte, hautagaitza-txostenean bildutako proiektuak aztertu, komentatu eta, azkenean, zenbait iradokizun egin dituzte; adibidez, lau proiektu nagusi eta parte-hartzailez osatutako multzo berria antolatzea (“zubi-eraikitzaileak”; “Wroclaw hiriaren espiritua”; *flow-halfway* ekitaldia; eta *sky webs* itxiera-zeremonia).

Lidergo artistikoari dagokionez, aurreko uztaietan hirian izandako Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeko bi kideen gomendioak betetzeko asmoa duela berretsi du ordezkariak; batez ere, programaren eduki osoa koordinatuko duen zuzendari artistiko bakar bat izendatzea.

Ordezkaritzak adierazi zuen alor artistikoen jarraipena egiten duten bederatzi komisarioen artean bat izendatuko dela, abendu hondarrean, lider artistiko izan dadin.

Hiritik harago, espiralaren beste maila batean, Poloniako beste hiri batzuekiko lankidetzak legoke “2016 koalizioaren” parte bezala. Horrela bada, hautagaitza aurkeztu arren aukeratuak izan ez diren hiriekin lankidetzan arituko da Wroclaw hiria. “Wroclaw 2016 agertokian” hasierako proiektuko zatiak aurkezteko aukera eman nahi zaie aipatu hiri horiei.

Eskualdea litzateke espiralaren hurrengo bira. Egonaldi artistikoak sortzen hasiko da Wroclaw eta, 2016ko proiekturako, Silesiako hiri txikiagoetan dauden egoitzen erabilera sustatuko du.

Azkenik, eginkizun gakoa izango du Europak espiralean. Horrela bada, arreta berezia jarriko da Europar Batasuneko inguruko estatu kideetan (Alemanian eta Txekiar Errepublikan), baita Donostian ere. Partekatutako proiektuak garatuko dira; adibidez, danborrada egingo da Wroclaw hiriko kaleetan barrena. Arreta berezia jarriko zaie iraganeko, egungo eta etorkizuneko Europako Kultur Hiriburuei. Europar Batasunetik harago, Errusiarekin lankidetzarako izan daitezkeen beste aukera batzuk aztertu nahi ditu Wroclaw 2016k. Horrela, 2012ko Eurokopaz geroztik hazi egin den Errusiako turisten kopurua aprobetxatu nahi du, bai eta Errusiaren eta Silesiaren arteko lotura historiko sakonez baliatu ere –sobietar armadaren aurreko kuartelak izan baitziren Polonian–. Gertu duen Ukrainiako Lwów hiriarekiko loturak garatu nahi ditu Wroclaw 2016k. Modu horretara, EKHren bidez sortutako jakintza eta emaitzak Europar Batasunetik kanpo zabaltzeko bidea eman nahi du.

Azpiegituri dagokienez, zehaztasun handiko eguneratzea aurkeztu zuen ordezkariak. Dirudienez, arte modernoaren museo berria izan ezik, hautagaitza-txostenean aipatutako beste kultura-azpiegitura guztiak 2016rako prest egongo dira. Programa artistikoari dagokionez, hautagaitza-txostenean jasotako proiektuen %80 bukatu direla, abiarazte-fasean daudela, edo plangintza egin dutela baieztatu du ordezkariak.

Finantzei dagokienez, egungo aurrekontua handitzea asmo dutela azaldu zuen ordezkariak; hasierako 78,6 milioi eurotatik 96,6 milioi eurotara. Hiriak jarriko du gainerako funtsen zati bat (8 milioi euro) eta, ziur aski, gobernu nazionalak jarriko du beste zati bat (10 milioi euro). Erakunde horien ekarpenak, hurrenez hurren, aurrekontu osoaren %37 eta %30 izango dira. Hirien ekarpena ziurtatuta zegoen; gobernu nazionalarekin, aldiz, negoziazioak martxan ziren. Ordezkaritzak adierazi zuen, Poloniako legeen arabera, ministerio guztien babesa duen epe luzerako gobernu-programa beharko dela estatuak EKHren muntako ekimen kulturalari laguntza eman diezaion eta, antzaz, nahiko zaila da ministerio guztiak ados jartzea.

Horiek horrela, Impart 2016 Jaialdiaren bulego bat Varsoviara irekiko zuela jakinarazi zion ordezkariak Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeari, eta kulturako ministro orde ohia Weksler jauna izango dela bulego horretako buru. Erakunde nazionalen aurrean Wroclaw 2016 proiektua aurkezteko litzateke Varsoviako bulegoaren egiteko nagusia; finantziarioari buruzko egungo negoziazioak barne. Hedabideen estaldura ere koordinatuko luke, telebista-kateak barne, hiriburuan baitaude guztiak.

3.2. Donostia-San Sebastián 2016

Donostiako alkatea izan zen ordezkariak buru. “Europako Kultur Hiriburutzak” hiriarentzat duen garrantzia azpimarratu zuen alkateak, eta berretsi egin zuen hiriburutza funtsezkoa izango

dela euskal kultura eta beste kultura gutxitu batzuk ezagutarazteko; bai tokian toki, bai nazio mailan, baita Europan ere.

Proiektuaren garapenean eginkizun handiagoa izatearen beharraz ohartu da hiria orain, ziurtatu behar baitu Donostiako herritar, talde politiko eta erakunde kultural guztien parte-hartzea. Horretarako, alabaina, hainbat eragile koordinatu behar dira, eta arreta handiz entzun behar zaie.

Horiek horrela izanik, Donostia-San Sebastián 2016, unibertsitateen, enpresa-komunitatearen, eta gizarte zibilaren ikuspuntua eta eskarmentua barnean sartze aldera, alkatea buru duen Gobernu Kontseilua zabaltzeko aukera aztertzen ari zela esan zen.

Ondoren, maila operatiboan eman berri diren urratsak gogora ekarri zituen alkateak, zehazki: zuzendari nagusi berria eta kultura-zuzendari berria izendatzea; talde exekutiboa berrindartzea; gobernu nazionalaren Aholkularien Batzorderako ordezkari berria izendatzea; tokiko agintaritzen urte anitzeko ekarpena onartzea; Gobernuak onartzea Donostia-San Sebastián 2016ren babesleentzako zerga-pizgarrien legea; eta Fundazioa egoitza berrira aldatzea.

Donostia-San Sebastián 2016 Fundazioaren estrategiari buruzko zehaztasun gehiago eman zizkion zuzendari nagusi berriak Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeari; adibidez, talde-kudeaketa, legatua eta komunikazioa. Adierazi zuen, baita ere, 22 pertsonak osatzen dutela orain talde exekutiboa eta, 2014az geroztik, 60 pertsona inguru izango direla.

Behin taldea berrindartu eta tentsio politikoak bideratu direla, honako urrats hauek emango dira proiektua garatzeko: programa artistikoa eraikitzea, lehenengo proiektu zehatzen planeamendua prest izango dela urtea amaitu aurretik; komunikazio-estrategia ezartzea, eta ekimenak sortuko duen ondarea bideratzeko planak garatzea; hori guztia tokiko komunitate kulturean gaitasun-sorkuntza sustatzeko, eskualdean kultura-industriak garatzeko, mentalitate-aldaketa sortzeko, eta hiriko biztanleen artean parte-hartze kulturala handitzeko.

Aurrekontuari dagokionez, 68,5 milioi eurotara murriztu dela esan zuen ordezkariak. Aurrekontuen %84 iturri publikoetatik dator, eta gainerako %16a iturri pribatuetatik. Gaur arte, hiriko, probintziako eta lurraldeko ekarpenak besterik ez dira ziurtatu (hots, aurrekontu osoaren %63). Gobernuak ez du oraindik bere ekarpena baieztatu. Babesle pribatuei dagokionez, itxaropenak murriztu ditu Donostia-San Sebastián 2016 Fundazioak. Horrela bada, kanpoko agentzia baten zerbitzuak eskatuko litzuke eta, aldi berean, aukerako beste finantzazio bide batzuk aztertu; adibidez, gauzako ekarpenak egitea.

Programa artistikoari dagokionez, hautagaitza-txostenean jasotako programa egi bihurtzeko ordua heldu dela adierazi zuen kultura-zuzendari berriak.

Europako dimentsioari dagokionez, 2016ko proiektuen helburuak ekarri zituen gogora. Helburu horietako bat litzateke europarren eguneroko kontuak lantzeko eta donostiarrek beren bizipen artistikoak Europako beste pertsona guztiekin partekatzeko laborategi bihurtzea Donostia-San Sebastián 2016. Beste helburua litzateke, aldiz, atzerriko figura artistiko garrantzitsuak lurralde honetara ekartzea. Horiek horrela, hasieran pentsatutakoak baino sona handiko artista gehiago ekartzeko asmoa dago orain, proiektuak are sona handiagoa izan dezan nazioartean. Ikuspuntu operatiboago batetik, azpimarratu zuten erakundeen arteko lankidetzak sakona sustatzeko bidea balitz bezala ikusi beharra dagoela 2016 proiektua; edo, bestela ere, artisten arteko sare-lana edota pertsonen arteko harremanak nazioartean indartzeko bidea bezala.

“Hiria eta hiritartasuna” irizpideari dagokionez, Olatu Talka amateurren makro jaialdiaren harira gauzatuko diren jarduerak aurkeztu zituen kultura-zuzendariak. Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz egingo dira. Aipatu zuen, baita ere, nola aldatuko lukeen 2016 proiektuak profesionalen eta herritarren jarduna, eta nola berrindartuko lukeen erakunde kultural gakoekiko lankidetzaz; adibidez, San Telmo museoarekin, Tabakalera hur-hurreko Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunearekin, edo Victoria Eugenia antzokiarekin.

Azkenik, egutegiari dagokionez, kultura-zuzendariak azaldu zuen 2014ko otsailean programa artistikoaren lehen zirriborroa aurkeztuko dela; 2014ko martxotik ekainera, berriz, aipatu programa hori aztertu egingo dela aurrekontuaren azken egoera kontuan izanik; eta, 2014ko uztailetik aurrera, produkzio-fasean sartuko dela Donostia-San Sebastián 2016 proiektua.

Zenbait atzerapen izan badira ere, fundazioko proiektu-buruak azpimarratu du hautagaitza-txostenean jasotako proiektuetako asko martxan direla dagoeneko, eta beste batzuk martxan jartzear daudela. Adibidez, lau proiektu handienetako lanak martxan edo bukatuta zeuden: San Juan euskal baleontzia berreraikitzea; egoitza berrira aldatzea; Olatu Talka ekitaldia; eta Bake Ituna erakusketa. Proiektuaren parte-hartze estrategia berritzailearen oinarrian diren sistema gehienak martxan zeuden, eta beste batzuk aktibatzeaz ziren (Hirikia: Transmedia laborategiak; Pagadi: arte garaikidearen eta sorkuntzarako laborategiak; Hazitegiak: sormen-prozesuen sarea; Hizkuntza: hizkuntza sarea; eta AUZOlab: herritarren energiaren laborategiak).

4. BATZORDEAREN BALORAZIOA

Erabakiaren 10. artikulua arabera, Batzordearen eginkizuna da jardueraren helburu eta irizpideen ezarpena gainbegiratzea eta Europako Kultur Hiriburuei babes eta orientabidea ematea. Testuinguru horretan, Batzordearen balorazioak eta gomendioak honakoak dira:

4.1. Wrocław 2016

Batzordeak goraiatu nahi du Wrocław 2016 egitasmoak orain arte egin duen lan handia, eta sinetsita dago proiektua bide onetik doala.

Alabaina, ekitaldiaren finantzaketari buruz duen kezka gero eta handiagoa agertu nahi du. Izan ere, orain arte funtsen % 37 soilik –Hiriaren ekarpenari dagozkionak– ziurtatu dira, 2016ra arte jada denbora gehiegi geratzen ez den arren.

Kezkagarria da ez Gobernu Nazionalak ez Eskualdeak oraindik dagokien finantzaketaren zatia jarri ez izana.

Hiriaren laguntzaren ondotik, proiektuaren aurrekontu orokorrerako ekarpenik handiena Gobernu Nazionalak egin beharrekoa da. Batzordeak ohartarazi zuen epe luzeko gobernu programa bat behar zela, ministerioen arteko akordio batean oinarritua. Prozesuaren konplexutasunaz jabetuta ere, Batzordeak Wrocław 2016ri eskatzen dio jarrai dezala gobernu nazionalaren konpromiso sendoa ahalik eta azkarren lortzeko ahaleginean. Datozen hilabeteotan, Wrocław 2016k programazio artistikoari buruzko erabakiak hartu beharko ditu, eta finantzaketaren inguruko ziurgabetasunak arrisku handian jarriko luke ospakizun urtea garaiz antolatzea. Alde horretatik, Batzordeak garbi utzi nahi du Wrocławen porrota programa gauzatzean Polonia osoaren porrot gisa hartuko litzatekeela.

Batzordeak abegiz hartzen du ordezkartzaren adierazpena esanez urte honen amaierarako zuzendari artistiko bat izendatuko zutela. Batzordeak errepikatu zuen “edertasun eremuak”

kontzeptua –hasierako programa artistikoaren bihotzean dagoena– oso konplexua eta atzemangaitza dela ikuspegi intelektualetik. Orientazio artistiko sendoa behar du, helburu ideologikoei jarraiki oker erabilia izan ez dadin. Batzordeak berriro dio lidergo artistiko indartsua behar dela ziurtatze aldera hautagaitza dosierrean aurkeztutako kontzeptu originala eskaeran adierazitakoarekin bat etorritik gauzatu dela.

Ospakizun urterako plangintza zehatza egiteko garaia hurbiltzen ari da, eta aukera gogorak egin beharko dira. Kultur eragileen frustrazioa –bederatzi komisarioetako batzuen barne– behar bezala kudeatu beharko da, eta beraz funtsezkoa da lana koordinatu eta programaren edukari buruz azken erabakiak hartzeko ahalmena duen zuzendari artistiko bat izatea. Oso garrantzitsua litzateke, halaber, Fundazioaren kudeaketa egitura sendotzea, Wrocław 2016 nazio barruan zein nazioartean indar handiagoz defendatu ahal izan dezan. Horri dagokionez, Batzordeak ez daki garbi zein den Varsoviako Inpart 2016 Jaialdiko Bulegoaren eginkizuna eta hark Fundazioarekin duen harremana.

Batzordeak gogoan hartu ditu ECoC programaren (European Capital of Culture, Europako Kultur Hiriburua) ebaluazioa abian jartzeko egin diren urratsak eta Impacts8 egitasmoa erabili izana. Azken lan hori erabat berritzailea zen, eta, oraindik ere oso baliagarria den arren, zehaztu behar da egungo ECoC programa beste irizpide multzo batean oinarritzen dela, batik bat “Europar dimentsioa” eta “Hiria eta hiritarrak” kontzeptuetan. Beraz, gomendatzen dugu Wrocławek berrazter dezala Ljouwert/Leeuwarden 2018 hautagaitzaren dosierra, eta bere estrategia agiri horretan aipatzen diren helburu eta irizpideen arabera egokitu dezala. Helburu espezifikoak ezarri beharko lirateke, Europako kulturen aniztasunaren inguruko kontzientzia aldatu den nahiz hiriko kulturaren parte hartzeak gora egin duen neurtu ahal izateko.

Azkenik, Batzordeak Wrocław 2016ri gogorarazi nahi dio hautagaitza aurkezteko fasean hiritarren aniztasuna ahalik eta gehien sustatzeko konpromisoa hartu zuela. Bileran, Batzordeak ez zuen erabat atzeman Wrocław 2016k zenbateraino ahalegina egin nahi duen programa artistikoan “gutxiengoan” gaia sartzeko eta, batez ere, gutxiengo horietako publikora heltzeko.

- » Goian mahaigaineratutako gaien garrantzia aintzat harturik, Batzordeak eskatzen du informazio eguneratua aurkez dakiola, txosten labur batean, 2014ko martxoaren amaierarako; zehazki, alderdi hauei buruz:
- » Jarduera kostuei aurre egite aldera bermatuta dagoen diru kopurua, eta iturriak.
- » Aurrekontu eguneratuaren inpaktua programa artistikoan.
- » Zuzendari artistikoaren izendapenari eta organigraman egondako aldaketei buruzko informazioa.
- » Informazio osagarria Fundazioaren eta Varsoviako bulegoaren arteko gobernanzako harremanari buruz eta horren ondorioak finantzatutako proiektuetan eta kutzako fluxuan.
- » Ebaluaziorako eta hasierako *ex ante* aurkezpenetako erabilitako helburu espezifikoaren eguneratze bat.
- » Wrocławeko gutxiengoetara heltzeko eta horiek programan txertatzeko ekimenak.

Txosten hau (6 orrialde baino gehiago ez ditu izan behar) Europako Batzordera bidali beharko da, eta hark Batzorde honetako kideei birbidaliko die. Eguneratze honi buruz egiten den analisiaren arabera, Batzordeak bere kideetako bat bertara bisita bat egitera bidal lezake, Europako Batzordeko ofizial bat lagun duela.

4.2. Donostia 2016

Batzordea harrিতuta dago Donostia 2016k izendapenaren osteko bileratik egindako aurrerapenekin

eta ziur dago berriki Fundazioan lanean hasi diren lagunek DSS2016 proiektua aurrera eramateko behar den eskarmentua, ezagutza eta grina dituztela.

Batzordeak abegiz hartzen du Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko gobernantza partekatua auzia itxura batean konpondu izana, erakunde bakoitzak proiektuarekin dituen finantza-konpromisoek irmo jarraitzen dutela horren erakusgarri baita. Gai hori beti izan da –eta halaxe jarraitzen du– kezka iturri handia Batzordearentzat. Izan ere, iraganean tartekatze politikoez atzerapen handiak eragin zituzten, eta orain Donostia 2016k denbora hori atzera irabazi behar du.

Batzordeak abegiz hartzen du ezagutza tekniko egiaztatua duen Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko goi funtzionario bat Administrazio Kontseiluan lan egiteko izendatu izana.

Batzordeak gogoratzen du hautaketa fasean Estatuko gobernuak 11 milioi euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuela. Gobernu horrek ez du oraindik Europako Kultur Hiribururako bere ekarpena onartu; atzerapen gehiagok programari zuzenean erasango liokete. Hiriburutzari egin behar dion ekarpena oraindik baieztatu ez izanak zalantza jarriko luke Europar Batasunaren Kontseiluak Espainian Donostia hiria 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatzeko hautatu zuen kultur programaren aplikazioa. Baliagarria izan liteke Donostia 2016k finantzaketa bilatzea Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa ez den beste ministerio batzuetan. Batzordeak nabarmendu nahi du, halaber, Donostia 2016 bultzatzen duten babesle pribatuentzako zerga pizgarriak ezartzen dituen legea, horrek aurrez jarritako babesleei buruzko helburuak betetzen lagunduko duelako.

Proiektuaren gauzatze fase honetan, garrantzitsua da Donostia 2016ko lantalde betearazleak ezagutzea agintari publikoek haien eskura jarriko duten aurrekontu osoa, programa artistikoa lantzeko zereginen kontzentratu ahal izan daitezen. Batzordeak aukera hau baliatu nahi du gogorarazteko Estatuko gobernuaren babesak ez duela esan nahi hark programa artistikoaren edukia gainbegiratzeko –eta are gutxiago erabakitzeke– ahalmena duenik.

Batzordeak gogoan hartu du Administrazio Kontseiluan kide gehiago hartzeko alkatearen asmoa, unibertsitateen, enpresen eta gizarte zibilaren esperientzia jasotze aldera. Hala ere, Batzordeak azpimarratzen du Kontseiluak ez lukeela kide gehiegi izan behar, horrek erabakiak hartzeko prozesu estrategikoan zurrunez bihurtzeko arriskua baitakar. Hori baino, kontsulta organo bat eratzea gomendatzen du Batzordeak, non unibertsitateek, artistek, enpresariek, abokatuak eta abarrek beren ezaguera ekar lezaketen Fundazioaren jardura estrategikoak aberasteko.

Batzordeak azpimarratzen du Europako Kultur Hiriburuaren programa artistikoa eta komunikazio planak ziurtatu behar dutela “Europar dimentsioa” eta “Hiria eta herritarrak” irizpideak behar bezala lantzen direla, edozein tropismo mota saihesten dadin, bertako publikoari soilik zuzendutako euskal kulturaren ospakizun bat antolatzeke arriskua uxatzearen. Espero liteke, adibidez, webgunean eta gizarte komunikabideetan harreman publikoetako mezuak frantsesez eta ingelesez ere jartzea, nazioarteko publikoari begira, euskaraz eta gazteleraz jartzeaz gain.

Batzordeak kontuan izan zuen nazioarteko artista ospetsuak ekartzeko asmo berria. Hala ere, planteamendu hori zuhurtziaz hartu du. Europar dimentsioa ez datza soilik programara “izen handiak” ekartzean. Hautagaitza dossierrean jada badagoen europar dimentsioa indartu eta hedatze aldera, Batzordeak gomendatzen du eskaera fasean aurkeztutako programa artistikoari ahalik eta estuen lotzea, proiektuburuaren ardurapeko proiektu izarrei eutsiz. Kultur programaren fokua ondorengo honetan jarri beharko litzateke: Europako lurraldeetan dauden kultura eta hizkuntza gutxituen aberastasun eta aniztasunari buruzko kontzientzia sortzean, Europan. Batzordeak Donostia 2016ri iradoki nahi dio sakonago azter dezala Ljouwert/Leeuwardenekin (berriki 2018ko Europako Kultur Hiriburu gisa gomendatua) elkarlanean aritzeko aukera eremu urriko kultura eta hizkuntzen arloan, eta Irlandako kideekin (batik bat Derry/Londonderryekin,

Erresuma Batuko 2013ko Europako Kultur Hiriburu izana), kultura erabiltzeko indarkeria gainditu eta elkarbizitza sustatzeko tresna gisa.

“Hiria eta hiritarrak” irizpideari dagokionez, Batzordeari ziurtatu zioten partaidetzaren aldeko hurbilbide erabat berritzailea gauzatuko zela, hautagaitza dosierrean aurreikusi bezalaxe, eta, besteak beste, laster agiri horretan aipatutako “sistemak” aktibatuko direla.

Ikuspegi orokorrago batekin, programa artistikoaren gauzatzeari dagokionez, Batzordeak Donostia 2016 Fundazioko kudeaketa lantalde berriari gomendatzen dio konfiantza handia izan dezala hautagaitza aurkezteko fasetik prozesuan parte hartu duten kideengan.

Europatik heldutako bisitarien interesa areago piztearren, Batzordeak Donostia 2016ri eskatzen dio berma dezala 2015eko otsailerako programa artistikoa bukatuta edukiko duela eta espainiar zein europar turistentzat erakargarriak izango diren aurrez prestatutako paketeak eskaintzeko moduan izango dela.

Aurrekontuaren banaketari dagokionez, Batzordeari iruditzen zaio baliabide gehiegi bideratu direla komunikaziora, soldatetara, gastu orokorretara eta administrazioa, programa artistikoaren kaltetan, eta Donostia 2016ri eskatzen dio oreka hori berrazter dezala.

Batzordeak gogoan hartu ditu ECoC programaren ebaluazioa abian jartzeko egin diren urratsak. Horren inguruan nolabaiteko presa dago, datozen hilabeteetan *ex ante* informazioa bildu behar du, ECOCak egindako aldaketen oinarri gisa.

Goian mahaigaineratutako gaien garrantzia aintzat harturik, Batzordeak eskatzen du informazio eguneratua aurkez dakiola 2014ko martxoaren amaierarako; zehazki, alderdi hauei buruz:

- » Funtzionamendurako gastuak ordaintzeko diru-kopurua zehaztea, bereziki estatuko gobernuak eman beharrekoa, eta baita babesle pribatuak erakartzeko estrategia ere.
- » Kultur programarako aurrekontua handiagoa planteatzea.
- » Kultur programaren eta honek Europako dimentsio sendoa mantentzeko baliatuko duen eraren deskribapena egitea, euskal kultura Europako beste kultura gutxituen testuinguruan jarritz.
- » Gaur egundik 2016ra arteko eta gerorako segimendua eta monitorizazioa egiteko erabiliko diren helburuak definitzea, ebaluazio-prozesuaren baitan.
- » Hedapen eta komunikazio-estrategia zehatz bat aurkeztea, estatuko eta nazioarteko publikoari zuzendua.

Txosten hau (6 orrialde baino gehiago ez ditu izan behar) Europako Batzordera bidali beharko da, eta hark Batzorde honetako kideei birbidaliko die. Eguneratze honi buruz egiten den analisiaren arabera, Batzordeak bere kideetako bat bertara bisita bat egitera bidal lezake, Europako Batzordeko ofizial bat lagun duela.

5. MELINA MERCOURI SARIA JASOTZEKO BETEKIZUNAK

Batzordeak bigarren bileraren ondoren aurkeztutako txostenaren arabera, Europako Batzordeak hautatutako hiriek Melina Mercouriren omenezko sari bat jasotzeko aukera dute, betiere Erabakiaren 4. artikuluan ezarritako irizpideekin bat badatoz (ikus behean) eta beren konpromisoak bete eta Hautaketa, Gainbegiratze zein Kontsulta batzordeek emandako gomendioak aplikatu badituzte. Saria 1,5 milioi eurokoa da, eta, hasiera batean, ospakizun urtea hasi baino hiru hilabete lehenago emango da. Europar Batasunaren Creative Europe programak finantzatuko du; programa ez da oraindik abian jarri, aurrez agintaritza legegileak onartu behar baitu.

Erabakiaren 4. artikuluan zehazten dira kultur programak jarraitu behar dituen irizpideak. Irizpideok 2 kategoriatan banaturik daude (“Europar dimentsioa” eta “Hiria eta hiritarrak”).

“Europar dimentsioa” irizpideari dagokionez, programaren eginkizunak dira:

- a) Dagokien Estatu kideetako eta beste Estatu kide batzuetako kultur eragile, artista eta hirien arteko lankidetzak sustatzea edozein kultur arlotan.
- b) Europako kultur aniztasunaren aberastasuna nabarmentzea.
- c) Europako kulturen alderdi komunak azpimarratzea.

“Hiria eta hiritarrak” irizpideari dagokionez, programaren eginkizunak dira:

- a) Hirian eta ingurumarietan bizi diren hiritarren partaidetza sustatzea eta haien nahiz atzerriko hiritarren interesa piztea.
- b) Jasangarria izatea eta hiriaren epe luzeko garapen kultural eta sozialaren partaide osoa izatea.

Batzordeak arreta handiz aztertuko du bi hiriek nola betetzen dituzten hautaketa fasean hartutako konpromisoak eta Batzordearen gomendioak.

Batzordea

| | |
|-------------------|---------|
| Manfred Gaulhofer | sinatua |
| Sir Jeremy Isaacs | sinatua |
| Steve Green | sinatua |
| Jordi Pardo | sinatua |
| Anu Kivilo | sinatua |
| Norbert Riedl | sinatua |
| Elisabeth Vitouch | sinatua |